


EUSKARAREN INGURUKO POLITIKEN GAINEAN (I)

BEHAR OROKORRAK

**ABOUT POLICIES ON BASQUE (I): GENERAL
REQUIREMENTS**

**POLÍTICAS SOBRE EL EUSKERA (I): NECESIDADES
GENERALES**



As a Working Paper, it doesn't reflect any institutional position or opinion neither of EKAI Center, nor of its sponsors or supporting entities

EKAI Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.

1. 2011ko Kale Erabilera datuak argitaratu ondoren, eta bertan agertzen diren euskararen datuek adierazten duten moteltze, edo are, geldialdiaren aurrean gero eta gehiago aipatzen da euskararen erabilerarekin zerikusia duten eragileen artean (administrazioak, euskalgintza, euskaltzaleak, eta euskaldunak oro har) estrategietan harantzago joan behar dela, eta zehazki, botere publikoei dagokien horretan erabilerari bultzada emango dioten neurri eraginkorrek hartzea beharrezkoa dela.

2. Hizkuntza politiken inguruko estreinako working paper honen bidez egoeraren sintesi orokor bat egingo dugu, esparru sozioekonomikoaren detaile batzuk ere sartuz, eta aurreragorako utziko ditugu aipatutako eragile horien orain arteko ibilbidearen eta aurrera begirakoan gaineko analisia.

3. Aipatutako neurketarekin batera 2011ko Inkesta Soziolinguistikoaren datuak ere argitara eman dira. Nahiz eta inkesta honen ezaugarri metodologikoak ezberdinak diren (kale erabilera neurketa zuzen bidez jasotzen da, eta inkesta hau izenak berak dioten moduan galdeketa bidez), eta ematen dituen datuak askoz zabalagoak diren (ezagutza eta hizkuntza ohituren xehatze handiagoa), biek emandako datuen artean koherentzia handia topa daiteke batik bat ahozko erabilerari dagokionean. Bigarren honek, inkestak, ez du erabilera moteltze orokorra hain garbi adierazten, baina neurtzen dituen hainbat esparrutan agerikoa egiten da. Inkestan ezaugarri positiboak –eta euskararen ezagutza, eta batez ere erabilera euskaldunen artean positiboa da inolako zalantzarik gabe- maiztasuna handitzera eraman dezake gainera galdekatua, eta horrek ere datuen ezberdintasun erlatiboan eragina izan dezake.

4. Datuak aztertuz gero, zenbait joerari erreparatzea komeni da:

- Lurraldeen artean ezberdintasun handiak daude
- Euskararen legezko errekonozimenduak eragin positiboa izan du batez ere ezagutzan, baina baita erabileran ere
- Bilakaera egokiena izaten ari den lurraldea Gipuzkoa da, beste batzuetan datuen arabera atzerakada gertatu dela ere ematen du
- Erabilera formala gehiago igo da erabilera informala baino
- Ofizialtasunaren emaitzek eragin kutsakorra du maila apalagoko errekonozimendua duten lurraldeetan. Horretan ziurrenera euskalgintzaren ekarpena gako interesgarria da

5. Marra lodiz marraztutako bi prozesu nabaritzen dira honela nahiz eta prozesu bietako xehetasun kapilarrak marrazten dituzten bi prozesuon ezaugarriak eta noranzkoak:

- Hizkuntzaren erregistro formalen etarako eta arautuen etarako ahalegin ikaragarria, botere publikoek eramandakoa neurri handi batean, baina baita euskalgintzak ere. Ondorioz erabilera formala indartu egin da, baina informala ez hainbeste
- Kantitatearen aldeko apustua, euskaldun kopurua areagotzearena alegia

6. Bi noranzko hauek logikoak izan dira euskararen ezagutzak eta ondorioz erabilerak lurralde guztian pasa den mendeko 80 hamarkadara arte izan zuen galerarengatik, eta gainera eraginkorrek izan dira, euskaldunen kopurua areagotzeko eta euskararen erabilera

As a Working Paper, it doesn't reflect any institutional position or opinion neither of EKAi Center, nor of its sponsors or supporting entities

EKAi Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.

handitzeko balio izan baitute, nahiz eta igoera hauek argi-ilunak eduki, eta irregularrak izan leku batetik bestera. Edonola ere agerian utzi dute euskararen aldeko hizkuntza politikak eta ahaleginak merezi izan duela.

7.Edonola ere, une honetan hizkuntza politikaren errebisio beharra erabileraren ikuspegitik enfokatu behar da. Horretan kontsentsu politikoa gainera zabala da.

8.Euskaldun kopurua handitzen asmatu baldin bada ere, erabilera handitzeko estrategiak ez dira ezagutzarekin erabil daitezkeenak bezain zuzenak eta agerikoak. Erabilerarekin ez da gertatzen ezagutzarekin gertatzen den bezala, ezagutza lortzeko estimuluak eta prozedurak agerikoak direla, baina erabilerari dagozkionak berriz ilunagoak dira, zeharkakoagoak. Hauen artean, eta Gipuzkoako datuei erreparatzen baldin badiegu, argi dago hiztunen trinkotasuna handitzea gako delako, baina gainera kompetentzia linguistiko handia lehenagotik dagoen tokietan erabileraren igoera askoz handiagoa da beste lekuetan baino. Gipuzkoaren tankerako lurralde baten kasuan beraz aldagai gutxiagok eta aldagai kontrolagarriagoek ematen dute erabilera handitzeko bidea.

9.Ez da gauza bera gertatzen beste lurraldeetan. Batetik behar besteko trinkotasun falta lurralde guztian, ezagutza areagotzeko estrategiak inplementatu ezina beren osotasunean (Iparraldean eta Nafarroako eremu gehienetan) erabilerarengan eragina izan dezakten aurre-faktoreak behar bezala hedatzea zailtzen du, eta ondorioz erabilerarengan eragina ez da positiboa. Bizkaiaren kasuan faktoreak ondo zabaltzeko modua baden arren, eta ezagutza trinkoko eskualdeak badauden arren, euskalkiaren aldagaiak eragin handia izan dezake baita ere hipotesi modura.

10.Politikak definitzerakoan erabileraren eragin handia duen gai bat erabilerarako zein esparru lehenetsi behar den da. Alegia, prestigiodun arloetan eragin nahi izan da batez ere ezagutzaren bidez, hizkuntza erabilera normatiboagoa duten lekuetan: hezkuntzan, administrazioan, hedabideetan... baita lan arloan ere. Ahalegin handia egin da arlo hauek euskalduntzeko, euskararentzat tradizioz itxitako esparruak izan direlako, eta gainera hiztunen aurrean hizkuntza prestigiotzeko, bere balioa eta erabilgarritasuna demostratzeko beharrezkoa zelako. Halaber, beharrezkoa zen euskaraz bizi ahal izateko funtsezko azpiegitura modura.

11.Honen ondoan, hizkuntza hegemonikoa den guneen garrantzia azpimarratu izan da, eta azpimarratzen ari da asko azken boladan. Hau da, hizkuntza bizirik dagoen eta natural erabiltzen den gunetatik abiatuta gauzatuko da euskararen errekupeazioa eta hedapena lurralde eta bizi esparru berrietara.

12.Prestigio guneen 'konkista' eta gune hegemonikoen zentraltasuna elkarren kontra jarri baldin badira ere, eta batak bestea ordezkatu beharko lukeela aditzera eman izan bada ere, nahita ala nahi gabe, biak dira beharrezkoak. Gipuzkoaren kasuak, eta hainbat herri euskaldunen kasuak argi erakusten du hau gainera. Eraitza onenak hiztunen trinkotasuna eta prestigiozko funtzioak konbinatu diren lekuetan gertatu dira, eta ziurrenera gainera eraitza hauek eragin hedakorra daukate inguruko gune funtzional eta geografikoetan.

13.Lan munduarekin zer gertatzen da? Azken hamabost urte luzeetako esperientziari esker lan mundua eremu erabat erdaldun izatetik euskalduntzen hasi den gizarte esparru bat izatera pasa da. Esperientzia asko pilatu dira,

As a Working Paper, it doesn't reflect any institutional position or opinion neither of EKAi Center, nor of its sponsors or supporting entities

EKAi Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.

baina ofizialtasun eremuetatik kanpokoak (Iparralde, Nafarroaren zonalde mixtoa eta hegoaldea) gutxi dira, eta gainera kooperatiben pisua ere handia da. Kooperatiben ezaugarriek logikoa egin dezakete lanaren euskalduntzea behin administrazioa euskalduntzeko urratsak ematen hasi eta erreleboa kooperatibok hartzea. Lehenengoan (administrazio lanaren kasuan) ofizialtasunaren bultzada eta hizkuntza eskubideen errekonozimendua dago. Bigarrenaren atzean ofizialtasun horren eta hezkuntzaren berreskurapenaren prestigioak, oinarri pertsonalista duten lan moldeetan (kooperatibetan) oinarri egin diola langileen ezaugarri kulturalen indartzeari, eta ondorioz euskara sustatzeari lan arloan.

14. Beraz erabilera indartu nahi baldin bada ofizialtasuna indartzetik hasi beharko da. Zeregin publikoetan, tartean lana, euskaraz gehiago egin behar da, horretarako bideak hainbat dira.

15. Lehenik nabaria da egungo administrazioek ez dutela errekonozituta dagoen estatus juridikoa erabat betetzen. Adibide ugari daude euskara ofiziala den lurraldeetan: osasun zerbitzuak, ertzaintza, hainbat herritan oraindik agertzen diren hutsuneak, administrazio zentralarenak eta abar.

16. Bestalde, lege bidezko errekonozimenduak oraindik bidea badu egiteko. Honela, kontsumo arloa da garrantzitsuenetako bat. Udal askok merkataritza planak abian jarri dituzten arren, kontsumo kompetentzia autonomikoetan egindako saiakerek, batez ere etiketaje eta saltoki handien gainean entseatu diren neurriek, erakusten dute oraindik asko dagoela egiteko, eta eremu pribatutzat jo izan den arren, ordena publikoa tarteko denez (kontsumoa hala baita) edo hartzaile potentzialak komunitate osoa denez eta komunitate honetako partaideek

euskara erabiltzeko (egin eta jaso) eskubidea dutenez (saltokien kasuan), zilegi da euskararen erabilerari lotutako eskakizun batzuk betetzea. Ohar gaitezen zerbitzu hizkuntzari buruz ari garela denbora guztian.

17. Horrez gain, kontsumo ohiturengan eragiteko ahaleginak egon badira ere hizkuntzaren ikuspegitik, zerbitzua euskaraz jasotzeko eskaria handitu beharra dago oraindik. Alegia, bidea hasi baino ez da egin zentzu honetan. Administrazioen eta euskaraz lan egiteko ohitura duten enpresen zeregina (bai enpresa publikoak, bai euskara planak dituztenak) da hau zalantzarik gabe. Beraiei kontsumitzaileen artean eskaria indartzeko gaitasuna dute batetik, baina baita beraien jarduerarako beharrezkoak diren aktibitateetan ere euskararen erabilera handitu dezakete, euskarazko zerbitzuei lehentasuna emanaz, eta mezuak gizarteratuz zentzu horretan.

18. Eta hirugarren hanka (ofizialtasuna areagotzeaz eta eskaria areagotzeaz gain) laguntza publikoa da: eredugarritasuna praktikatzuz eskari sorreran aurreko puntuan aipatu bezala eta ofizialtasun esparruak handituz, baina baita eskaria areagotu dutenen lana, eta eskaintza handiagotu dutenena errekonozituz. Honela euskararen inguruko ziurtagirien erabilera eta sustapena elementu indartsua da errekonozimendu zeregin honetan.

As a Working Paper, it doesn't reflect any institutional position or opinion neither of EKAi Center, nor of its sponsors or supporting entities

EKAi Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.